

ROLE-PLAYING TAILERRA: NEGOZIAKETA ERABAKI HARTZEAN EREMU PUBLIKOAN

- **Jakintza adarra:** Gizarte eta Lege Zientziak
- **Campus:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
- **Gradua/k:** Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa
- **Garapen-lekua (helbidea):** Barrio Sarriena z/g, Leioa (Bizkaia)

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Role-playing ekintza Euskal Erkidegoko zentroetan Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa Gradua ezagutzeko interesa duten batxilergoko ikasleei zuzendua dago.

Tailerrean parte hartuko duten ikasleek ez dute gaitasun edo ezagutza bereizirik izan behar. Tailerra burutzeko beharrezkoa den informazioa ekintza burutzen den heinean jasoko dute.

Tailerra Gizarte eta Komunikazio Zientziako *Gesell* laborategian burutuko da. Ikasleak erabakian parte hartzen duen aktore bilakatuko dira eta baliabideak eta negoziaketa estrategia erabiliz bere rolarentzat onuragarriagoa izango den erabakia hartzen saiatu behar du.

Eremu publikoan erabakiak hartzeak dituen zailtasunak eta Politika Zientziako profesionalak prozesu honetan duten paperak erakustea da tailerraren helburua. Alderdi politikoekin aholkularitza lanaz gain, administrazio publikoarentzat kontsultari edo administrazio publikoaren barnean tekniko orokor edo partaidetza agente moduan egiten duten jardura erakustea.

Era berean, ikasleek erabakietan parte-hartzen duten aktoreen aniztasuna (erakundeak, gizarte agenteak, komunikabideak, auzo elkarteak, etab.) hautemango dute. Planteamendu estrategikoak erabaki eta burutze prozesuan duten garrantzia nabarituz.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

1. *Role-playing*-ean landuko den gaia eta bere testuingurua ezagutu NIMBY erreakzioak sortzen dituzten antzeko politiken inguruko prentsa aztertuz.
2. Politika publikoan, zuzenean edo zeharka, dauden aktoreak ezagutu, dituzten baliabide ekonomikoak, denbora, mobilizazio gaitasunak, agintea etab., kontuan izanik erabakian eragina izateko duten gaitasuna aztertu.
3. Negoziaketarako eta erabakiak hartzeko ereduak eta hauek dituzten ondorioak ikasi.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

1. Gatazkaren barnean bakoitzak duen rolaren mugak eta aukerak jakiteko aurkezten zaien txostenen irakurketa.
2. Role berdina duten ikasleek estrategia berdina adostea.
3. Negoziaketa Prozesua. Ikasleen artean negoziaketa bere rolaren arabera onuragarriagoa izango zaion erabakia hartzeko.
4. Azken erabakia, taldeka emaitzen eta prozesuaren ebaluazioa DAFO teknika erabiliz.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2025-01-27	Euskara	Goizez	10:00 - 12:00	30
2025-01-27	Gaztelania	Arratsaldez	15:00 - 17:00	30